

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du eta gainerakoetan 0,8. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

AURREKONTUETAN PARTE-HARTZE BIDEZKO PROPOSAMENAK EGITEKO EPEA IREKITA

Bilboko Udalak abian jarri du, bigarren urtez jarraian, parte-hartze bidezko proiektua. Iaz hasitako bidetara jarraiki, herritarrei aukera emango die ideiak eta proposamenak aurkezteko eta, onetsiz gero, **1** Udalaren hurrengo urteko aurrekontuan sartzeko.

Udal-taldeek eskatuta, gaur goizean egindako **2**, Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Saileko zinegotziak proposamenak aurkezteko epearen **3** eman du. Epe hori bihar, apirilak sei, hasiko da eta maiatzaren lauan amaituko da. Zinegotziak berak **4** du lehenengo edizioan parte-hartze bidezko prozesuak oso harrera ona izan zuela eta hirurehun eta bi proposamen egin zirela, «oso interesgarriak, ondo argudiatuta». Proposamen horiek norbanakoek eta elkarteek egindakoak izan ziren, eta argi utzi zuten herritarrek prest daudela Udalaren gestioan laguntzeko. Azkenik, Udalaren iazko aurrekontuetan herritarrek egindako hogeita bi proposamenei **5** hamazazpi proiektu burutu ziren, bi milioi euroko kostuarekin.

«Iaz esan genuen legez, parte-hartze bidezko proiektua behin betiko geratzeko asmoz etorri da Bilbora. Eragingarria da eta ilusio-eragilea eta, hortaz, **6** ematea eta hobetzea besterik ez zaio falta, hartara gero eta jende gehiagok egingo baititu ekarpenak», gehitu du zinegotziak. **7**, hainbat hobekuntza tekniko egin dira barruan, betiere prozesua azkartze aldera, eta ekarpenak egiteko astebete gehiago egongo da; aurten, **8**, hilabeteko epea egongo da proposamenak egiteko. Iaz bezala, aurten ere Bilboko Udalak urteko aurrekontuetan bi milioi euro gordeko ditu parte-hartze bidezko prozesuan onartzen diren proposamenak aurrera eramateko. Aurten, **9** modura, proposamen bakoitzaren kostua ezingo da bostehun mila euro baino handiagoa izan, **10**, parte-hartze bidezko aurrekonturako kopuru osoaren ehuneko hogeita bost baino handiagoa.

Prozesu honetako **11** Bilbon erroldatuak eta hamasei urtetik gorako pertsonak izango dira edo Udal Erregistroan dagoen edozein erakunde, elkarte, fundazio, sindikatu, enpresa-elkarte, elkargo profesional, zuzenbide publikoko korporazio eta bestelako edozein entitate. Proposamenak aurkeztu ahal izango dira udal-webguneko «Parte-hartze bidezko Aurrekontuak» atalean dagoen **12** bidez, edo idatziz, Bilboko Udalaren Erregistro Nagusian edo udal-bulegoetan. Proposamenei identifikazio-kodea **13** zaie, egileek proposamenaren jarraipena egin dezaten.

Bilboko Udaleko parte-hartze bidezko aurrekontuen prozesuan aurkezten diren proposamenak Udalaren **14** zein-nahi arlotakoak izan daitezke (garapen ekonomikoa, gizarte arloko politikak, kultura, euskara, gazteria, kirola, segurtasuna, ingurumena...), baina, ahal dela, hiria hobetzeko obrei eta lanei buruzkoak ez direnak, obra horiek beren prozesua eta aurrekontua baitituzte Auzokide Planean. **15**, gogoratu behar da Bilboko Udalak, Auzokide Planaren bidez, hamabi milioi euro jartzen dituela urtero, auzoetako obrak eta hobekuntza-jarduerak planifikatzeko eta garatzeko; obra horiei herritarrek berek ematen diete lehentasuna Barrutietako Kontseiluen bidez, eragile politikoekin eta sozialekin batera. **16**, proposamenak garrantzizkoak eta interes orokorrekoak izango dira auzo edo barruti jakin baterako edo hirirako. Pertsona edo erakunde jakinentzako diru-laguntzen, sarien, laguntzen edo kontratazioen arloko proposamenik ez da onartuko, ez eta langileen gastuen arlokorik ere. Beste ekimen zehatz batzuk ere **17** dira: krisia jasaten ari diren pertsonen lana aurkitzen laguntzea; gune batzuetako bizimoduaren kalitatea hobetzea; jendearentzat itxita egoten diren eraikinak eta espazioak zeintzuk diren **18**; kultur jarduerak sustatzea auzoetan; euskararen erabilera sustatzea eta kaleko edanaren arazoaren aurrean gizalegezko jokabideak bultzatzea.

<www.bilbao.eus>, 2017ko apirilaren 5a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- | | | |
|---|--|--|
| 1. a) behingoz
b) beharbada
c) bidenabar
d) bederen | 2. a) ateraldian
b) omenaldian
c) agerraldian
d) egonaldian | 3. a) baitan
b) esku
c) berri
d) arabera |
| 4. a) eraldatu
b) antzutu
c) aztoratu
d) nabarmendu | 5. a) egotzitako
b) lagatako
c) eutsitako
d) lotutako | 6. a) gordintasuna
b) egonkortasuna
c) berekoitasuna
d) ahultasuna |
| 7. a) Bestela
b) Horrezkero
c) Horretarako
d) Azkenik | 8. a) esaterako
b) beraz
c) batik bat
d) funtsean | 9. a) gertutasun
b) osotasun
c) berritasun
d) trebetasun |
| 10. a) hau da
b) alabaina
c) orobat
d) batez beste | 11. a) jarraitzaileak
b) hornitzaileak
c) kudeatzaileak
d) eskatzaileak | 12. a) inprimakiaren
b) estalduraren
c) iragarkiaren
d) iruzkinaren |
| 13. a) zenbatuko
b) aldarrikatuko
c) nagusituko
d) esleituko | 14. a) eskumeneko
b) hondameneko
c) adimeneko
d) irudimeneko | 15. a) Osterantzean
b) Hurrenez hurren
c) Izan ere
d) Aitzitik |
| 16. a) Lehenik eta behin
b) Nolanahi ere
c) Behinik behin
d) Esanak esan | 17. a) artatu
b) ihardetsi
c) begitandu
d) aurreikusi | 18. a) galaraztea
b) jakinaraztea
c) azaleraraztea
d) sorraraztea |

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ETXEAREN MINTZOA

«Munduko leku maiteena/ zuri zor dautzut naizena/ izana eta izena». Hitzok eskaini zizkion Xalbadorrek sortetxeari, Urepeleko (Nafarroa Beherea) *Xalbadorreneari*. Eta, hark esan bezala, etxea izan da euskal herritarrei izana eta izena eman dizkiena urte luzez. *Axularreneak* eman zion izena *Gero* klasikoaren idazleari. Sortetxeagatik ez, baina errentan zuen etxearengatik deitzen zaio *Txirrita* Jose Manuel Lujanbio bertsolariari, etxetik hartutako izena ohorez eraman zuen gizonari.

Etxea izan liteke eraikina, eta izan liteke instituzioa. Bi ezaugarriok izan ditu Euskal Herriko historian. Eraikin gisa mantentzen dira etxe anitz, baina instituzio gisa etxeak galdu egin du hainbat mendez izan duen garrantzia. Etxeak zer izan diren ez ahanzteko, liburu bat argitaratu du Juan Carlos Etxegoien *Xamar*-ek: *Etxea. Ondarea, historia, mintzoa*. «Orain ez, baina 1000-1400 urteen artean garatu zen etxea instituzio gisa, eta hura izan da herrien antolaketaren oinarria XX. mendera arte. Eraikina, berriz, berritu egin da mendez mende». Adituek diote XVI. mendean etxeen (eraikinen) loraldi bat izan zela, eta ordukoak direla gaur egun dauden zaharrenak. Lehenagokorik ez, ez bada gazteluren bat edo antzeko eraikinen bat. Hala ere, Euskal Herriko arkeologoek aurkitutako gutxi batzuk badira Erromatarren garaikoak eta Burdin Arokoak, kasurako.

Etxearen izana dagoeneko galdu egin da, batik batik Industria Iraultzaren ondorioz baserriak husten hasi zirenetik. Laborarien munduari loturik zegoen eta, eskualde jakin batzuetan oraindik nekazaritza nagusi bada ere, oinarria dagoeneko ez da etxea. Euskal Herriko etxeek izena zuten, eta oraindik ere badute askok. Izen horiekin asko esaten dute etxeek: «Izenen sorrerak eta bilakaerak erakusten du gure kultura nola garatu den mila urtean, eta zer garrantzia izan duen guretzat». Xamarrek azaldu duenez, Euskal Herriko etxea izan da herritarrei izena ematen ziena. Elizaldeko seme edo alaba *Elizalde* zen. Baina norbait Iturraldeko ezkonduz gero, izena aldatzen zuen: hortik aurrera *Iturralde* zen. Gero, latinaren kultura heldu zen: Eliza eta zuzenbide zibila. «Horiek beste sistema bat dute, patronimikoa, aitaren deiturarena, hemengoarekin zerikusirik ez duena», dio liburuaren egileak. Elizak bataio-liburuak sortu zituen 1545eko Trentoko

Kontzilioari jarraiki, eta, horietan, aitaren deitura lehenesten zen seme-alabentzat. Iturralden bizi arren, sortetxea Elizalden zuena *Elizalde* zen aurrerantzean ere, beraz. Hala ere, horrek ez omen zuen bide luzeegirik administratziotik kanpo. Abizen ofiziala Elizalde izanagatik ere, herrian denek *Iturraldetzat* hartuko zuten pertsona hori. Izena jartzeko tenorean ez zuen axola aitaren deitura zein zen.

Hala ere, badira ohiko sistema erabili gabe izendatu diren etxeak azken mendean. Horiek ez ditu begi onez ikusten Xamarrek. Batik bat, Euskal Herria etorri eta etxea egin dutenen kasua izaten da. «Oso exotikoa da etxeari euskarazko izena jartzea, baina denak dira itzulpenak: nola esaten da *mon amour* euskaraz? Ba, *Ene maitia* deituko da». Modu berean sortu dira *Toki alai*, *Bi kabi*, *Nun hobeki*,... Liburuaren egilea lehengo sistemaren aldekoa da. «Sistema horretan, izendatzeko bi modu erabiltzen ziren: bata, propietatean oinarrituta —*Loperena*, *Barberena*, *Perurena*...— eta, bestea, etxe zaharragoen kasuan, inguruarekin lotzen zituen zerbait oinarri hartuta —*Oihanburua*, *Iturraldekoa*...—». Etxe berriak egin direnean, horrelako sistemak erabiltzeko gomendioa egin die jabeei. Gainera, euskaldunak ez dira sobera konplikatu izenak asmatzean: etxe berria egin dela, *Etxeberria*. Beste etxe bat egin dela, *Etxebertz*. Etxe baten aurrean egin dutela, *Aurrekoetxea*.

Arkitekturari erreparatuz gero, adituek barrokoa, gotikoa, errenazimentukoa edo neoklasikoa bereiziko lituzkete. Xamarrek bestela egin du: «Kanpotik begiratuta ezberdinak diren bi etxe haientzat berdina izan daitezke; beraz, niri ez dit irizpide horrek balio. Nik banatu egiten ditut arkupea dutenak, bi edo hainbat arkupe dituztenak, lorio edo babestutako atartedunak, babestu gabeko ataria dutenak eta atartea dutenak».

Etxeen balioa, eraikin gisa eta instituzio gisa, ahanzturan erortzeko arriskuan egon liteke. Izan ere, normalean ez zaio balio handiegirik aitortzen. Udalek turismoa sustatzeko erabiltzen dituzten euskarrietan ohikoak dira elizak, dorreak, gazteluak, baselizak edo, akaso, garbitokiak; ez, aitzitik, baserriak. «Badaude absolutuki ederrak

diren etxeak, eta ez ditugu sustatzen. Gipuzkoan, batez ere, anitz daude izendatuak monumentu gisa, baina ez dira sustatzen», kexu da Xamar. Estilo guztietako etxeak ikus daitezke Euskal Herrian, jauregiak eta elizak egiten aritzen ziren pertsona berek eraikitzen baitzituzten. «Nire ustez, arkitektura hori biztanleen bizitzatik askoz hurbilago dago elizena baino», gaineratu du idazleak. Onartu beharra dago Euskal Herriko etxeak, dagoeneko, ez direla lehen zirena. Ez dute balio bera. Dena den, Xamarrek ez luke nahi etxeak gizartearen antolaketan izan duen pisua eta garrantzia ahanzturan gelditzea.

TUBIA, I. *Berria*. 2017ko urtarrilaren 19a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

19. Zer dio Xalbadorrek Euskal Herriko etxeaz?

- a) Leku maitatu horri nortasuna ematen diogula gure izenaz.
- b) Urteetan zehar, etxeari izena ez ezik, garena ere zor diogula.
- c) Euskaldunok etxetik hartutako izena ohorez eramaten dugula.

20. Zer dio testuak etxearen ezaugarrien inguruan?

- a) Eraikin gisa galdu badu ere, instituzio gisa mantendu dela.
- b) Eraikin rola zein instituzio rola galdu dituela denboran zehar.
- c) Etxe asko eraikin gisa mantendu direla, instituzio rola galdu arren.

21. Noizkoak dira gaur egun Euskal Herrian dauden etxerik zaharrenak?

- a) Gazteluak izan ezik, beste guztiak XVI. mendekoak baino lehenagokoak.
- b) Gehienbat Erromatarren garaikoak eta Burdin Arokoak.
- c) XVI. mendean etxeen eraikuntzan egon zen pizkundekoak.

22. Zer dio testuak Euskal Herriko etxeen izenez?

- a) Gure kulturaren garapenaren isla direla.
- b) Laborarien munduarekiko lotura erakusten dutela.
- c) Etxea oraindik ere herriaren antolaketaren oinarria dela.

23. Zer ekarri zuen latinaren kulturak izena jartzeko unean?

- a) Administrazioan izan ezik, herri mailan aldaketarik ez.
- b) Harrezkerotik etxeak herritarrei izena ez ematea.
- c) Bizitzaren arlo guztietan aitaren abizena lehenestea.

24. Zer jarrera du Xamarrek etxea izendatzeko ohiko sistema ez erabiltzeaz?

- a) Oso exotikoa dela uste arren, ez du gaitzesten.
- b) Itzulpen egokiak diren kasuetan begi onez ikusten du.
- c) Txartzat hartzen du, propietate edo leku-izena lehenesten baitu.

25. Zer uste du Xamarrek arkitekturari erreparatuz gero?

- a) Etxeak banatzeko adituen irizpideekin bat datorrela.
- b) Etxeak estiloen arabera sailkatzea ez dela nahikoa.
- c) Estilo bereko etxeak, ezin direla kanpotik desberdinak izan.

26. Zer ondorio ateratzen du Xamarrek etxeen arkitekturaz?

- a) Gizartearen antolaketan duen garrantziak iraugo duela.
- b) Elizarena baino hurbilago dagoela biztanleen bizitzatik.
- c) Elizen edota jauregien arkitekturarekin ez duela zerikusirik.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (27, 28, 29...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

BOTIKA BERRIEN BERMEA, GERO ETA AHULAGOA

Ez dago sendagai erabat segururik, eta horregatik, botika berri bat merkatura atera nahi duen konpainia farmazeutikoak frogatu egin behar du dakarren onura handiagoa dela sor lezakeen kaltea baino; azken hamarkadetan, ordea, «lasaitu» egin dira hori ziurtatzeko erabiltzen diren irizpideak. **27**

Europar Batasunean sendagaiak merkaturatzeko baimenak eman edo ukatzen dituen organismoa Medikamentuen Europako Agentzia da, EMA, ingelesezko sigletan. AEBn FDAk (Food and Drug Administration) egiten du lan hori, eta munduko herrialde gehienetan bi horiek esandakoari men egiten zaio orobat. Baina sistemak ez du beti horrela funtzionatu. **28** Hasieran oso arrakastatsua izan zen European, baina oso ondorio larriak utzi zituen: milaka ume malformazio larriekin jaio ziren haren erruz. Tragediari erantzunez, mendebaldeko agentziek sendagaiak baimentzeko baldintza modura ipini zuten gaur egun ezagutzen ditugun proba-saio klinikoak egitea. **29**

Juan Erviti Nafarroako Osasun Saileko Sendagaien Ebaluaziorako zerbitzuburuaren esanetan, desarautze prozesu horretako itu garrantzitsu bat Nazioarteko Harmonizazio Kontseiluaren (ICH) sorrera izan zen, 1990ean. **30** Lehen, sendagai baten sortzaileek frogatu egin behar zuten merkaturatu nahi zuten konposatua eraginkorragoa zela gaitz bererako jadanik erabiltzen zirenak baino. «Baina une batetik aurrera», diosku Ervitik, «erabaki zen aski zela okerragoa ez izatea». Gainera, horren interpretazioa malgugia izan daiteke eta, botika berria pixka bat okerragoa izanda ere, maila berekotzat jotzen da, ontzat ematen baita kalitate galera txiki hori ez izatea klinikoki garrantzitsua. Beste batzuetan, berriz, onartu egiten da saiakuntza klinikoetan sendagai berria plazeboarekin bakarrik konparatzea, eta ez da aztertzen probatzen ari denak zenbaterako eraginkortasuna duen dagoeneko merkaturatzen dauden erreferentziazko konposatuekin alderatuz. **31** Izan ere, merkaturatzen diren botika zaharragoak, patentea agortuta egonik, bertsio generikoan sal daitezke maiz, eta ez diete enpresei irabazi handirik ekartzen.

Sendagai berrien segurtasunari buruzko irizpideak ere apaldu ditu EMAk, Ervitiren esanetan: «gaur egun, onartu egiten da merkatura irtetea proba-saio klinikoetan segurtasun-arazoak izateko zantzuak agertu dituzten zenbait botika». Kasu horretan, botika berria komertzializatzeko baldintza modura jartzen da Arriskuen Kudeaketa Plana egitea behin kalera aterata. Hau da, sendagaiak gaixoengan dituen ondorioak behatzea hura merkaturatzen hasi eta gero. **32** Saiakuntza fasean nekez emango zaio sendagaia hainbeste pertsonari, horregatik komeni da substantzia berrien ondorioak behatzea merkaturatu ostean ere.

Agentzia arautzaileek bestelako bideak ireki dituzte zenbait botika merkaturatzeko, ebidentzia zientifikoa ahulagoa izatea onartzen dutenak. Bide horietako bat «ezohiko baldintzetan» emandako baimenak dira. Ervitik azaltzen duenez, batez ere sendagai «umezurtzei» ematen zaizkie, hau da, zenbait gaixotasun arraroren tratamendu gisa erabiliko direnei. **33**

«Baldintzapeko baimena» izeneko da azken urteetan zabaldu den ildo bereko beste lizentzia mota bat. Une batean, EMAk eta FDAk erabaki zuten azkartu egin behar zela zenbait sendagai merkatura irteteko prozedura, bereziki bizia arriskuan jartzen duten edota oso ahulgarriak diren gaitzen aurkakoak. Ervitiren ustez, horrek badu alde ona, eta jendartean arrakasta du, teoriarik gaitz gaitz mesedegarria delako alternatiba berriak lehenbailehen eskura izatea, baina praktikan ikusten ari da neurriak, oro har, ez duela onuririk ekarri. **34** Europar Batasunean ezarri nahi duten lizentzia berri horrekin, oso jende gutxiarekin probatutako sendagaiak merkaturatzeko atea askoz gehiago zabalduko da. Sendagai berriek

hobekuntza dakarten kasuetako askotan hobekuntza hori hutsaren hurrengo izaten dela ondorioztatu dute beste ikertzaile batzuek. Esaterako, gaixoen biziraupena batez beste pare bat hilabetez luzatzea; horri gehitu behar zaio onura txiki horiek, maiz, errealitatearekin bat ez datozen gaixo taldeekin egindako proba-saioretan behatu direla: gaixo gehienak baino gazteagoak izan ohi dira, eta aztertzen ari den gaitzarekin batera osasun-arazo gutxi dituztenak.

UNAI, B. *Argia*. 2017ko urriaren 29a. Egokitua

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Kontuan izan behar da saio klinikorik handiengan ere askoz jende gutxiagok probatzen duela botika gero benetan hartuko dutenek baino, eta gerta liteke efektu kaltegarriak 5.000 edo 10.000 hartzailetik bati erasatea.
- B.** Mota horretako baimenak minbizia tratatzeko medikamentuei ematen zaizkie gehienbat; Europako Onkologia Elkartearen aldizkarian argitaratutako artikulua baten arabera, botiken merkaturatze-epeak nabarmen laburtu izanak ez die gaixoei abantaila terapeutiko aipagarririk ekarri.
- C.** Konpainia farmazeutikoek nahiko erraz sortzen dituzte produktu berriak, hogeitaz urterako patente baten babespean eta, jakina, salmenta prezio altua ezartzea lortuz gero, diru asko irabazten dute.
- D.** 60ko hamarkadaren erdira arte oso proba gutxi eginda merkaturatu zitezkeen sendagaiak, baina Talidomidaren eskandaluak aldarazi zuen egoera. Talidomida 1957tik 1963ra saldu zen medikamentua da, emakume haurdunei goragalea arintzeko ematen zitzaiena.
- E.** Jokatzeko bi modu eskuzabalegi horien ondorioz, sarritan merkatura ateratzen dira beren aurrekoak baino eskasagoak diren medikamentuak eta, gainera, lekua kentzen diete haiei, konpainia farmazeutikoek sendagai berriak sustatzen dituztelako.
- F.** Eta une honetan mahai gainean dago sendagaien onartze-prozedura laburtzeko europar arautzaileen proposamena, eta horrek ekar dezakeen arriskuaz kezka agertu dute osasungintzaren alorreko ahots askok.
- G.** Gaixotasun horien kasuan, gaixo kopurua oso txikia denez, onartu egiten da aurretiazko ikerketak kalitate txarragokoak izango direla, eta bai eraginkortasunari, bai segurtasunari buruzko datuak ez direla nahi bezain onak izango.
- H.** Baimenak emateko baldintzak gero eta zorrotzagoak bilakatu ziren, baina orduetik hona desarautzea gertatu da; konpainia farmazeutikoei gero eta gutxiago exijitzen zaie sendagai bat merkaturatu ahal izateko.
- I.** AEB, Europar Batasuna eta Japoniako erregulazio-agentziek osatzen dute kontseilua, herrialde horietako farmazia-industriako ordezkariekin batera; eta bertan erabaki garrantzitsuak hartzen dituzte sendagaien erregulazioaren alorrean, gero herrialde bakoitzeko araudian txertatzen direnak.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Duela bi urte, Gobernu Kanpoko Erakunde baten programa batean parte hartzeko baimena eman zizuten lanean. Administrazioan baimen hori beste bi urtez luza daitekeela jakinda, luzapena eskatu zenuen gerora. Gaur, idatziz, ezezo erantzuna jaso duzu, lanean antolaketa-arazoak sor litezkeela eta.

Horregatik, eskutitza idatziko diozu Giza Baliabideetako zuzendariari zure desadostasuna adierazteko eta baimenaren luzapena eskatzeko arrazoiak zein diren jakinarazteko.

Idatzi eskutitz hori.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Jaiak musikaz, dantzaz eta parrandaz gozatzeko uneak dira; baina, alkoholaren aitzakia tarteko, hainbat “txantxa”, jokabide lizun eta portaera errespetugabe jasan behar dituzte emakumeek eta, kasurik larrienetan, hilketak eta bortxaketak ere bai.

Azkenaldion udako jaietan gertatutako eraso sexistak direla eta, zeure iritzia ematea erabaki duzu herriko aldizkarian.

GAIA: JAIETAKO ERASO SEXISTEN AURREAN, ZER?

Indarkeria sexista izan daiteke handiagoa edo txikiagoa, baina beti du jatorri berbera: ez onartzea emakumeek beren harremanez, gorputzaz edo sexualitateaz erabakitzeke duten eskubidea.



Eraso baten
aurrean, deitu!



Kasurik larrienak (hilketak eta bortxaketak) “icebergaren tontorra” baino ez dira. Gizartea horien kontra argi eta garbi agertu arren, indarkeria kasu gehienak oraindik ere ezkutatu egiten dira.

Emakundek bultzatuta, eta foru aldundiek eta Euskadiko udalek lagunduta, eraso sexisten kontrako hainbat kanpaina jarri dira abian, jaietan eraso sexistak prebenitzeko.

- Zer pentsatzen duzu jaietan gertatutako eraso sexistez?
- Zer dela eta gertatzen dira gaur egun? Zein da jatorria?
- Zer uste duzu jaietan egiten diren eraso sexisten kontrako kanpainez?
- Zer proposatuko zenuke arazoari irtenbidea emateko?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Irakurmen-proba

■ 1. ariketa: hutsuneak bete.

■ Irakurgaia: «Aurrekontuetan parte-hartze bidezko proposamenak egiteko epea irekita»

1.	B	2.	C	3.	C
4.	D	5.	D	6.	B
7.	C	8.	B	9.	C
10.	A	11.	D	12.	A
13.	D	14.	A	15.	C
16.	B	17.	D	18.	B

■ 2. ariketa: aukeratu erantzuna.

■ Irakurgaia: «Etxearen mintzoa»

19.	B	20.	C	21.	C
22.	A	23.	A	24.	C
25.	B	26.	B		

■ 3. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ Irakurgaia: «Botika berrien bermea, gero eta ahulagoa»

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	F	D	H	I	E	A	G	B

Soberakoa	C
-----------	---